

Olentzeroren nahigabea

- Herritar bat : Zer mila deabru pasatzen da ? Abenduaren 25a da eta Olentzero ez da oraino agertu. Ez da normala ! Zerbait gertatu dakioke !
2. herritarra : Arrazoi duzu. Ez da haren usaietan. Egin duen elurtearekin nonbait kokatua dateke. Haren bila joan behar genuke.
3. herritarra : Ba pentsa ! Segur naiz bere txabolan dagoela, goxo-goxoan supazter xokoan. Lotsa da egiten duen hotzarekin ateratzeko.
4. herritarra : Ez, urtero sasoi honetan, edozein aro eginik ere, Olentzerok ikatza ekarri digu. Badaki haren beha gaudela. Gutarik batzuk joan behar genuke haren bila.
5. herritarra : Ni joanen naiz. Bost haur ttipi ditut eta ez badut etxea berotzen, erituko dira. Nor heldu da enekin ?
6. herritarra : Ni. Zurekin joanen naiz. Ihiztari trebea naiz eta otsoek erasotzen baldin bagaituzte, eskopeta honekin urrunaraziko ditut. Jauntzi beroak har ditzagun eta abia gaitezen gaua jin aitzin.
7. herritarra : Ni ere zuekin nator. Hotzak eta bide luzeak ez naute iziarazten.
- Olentzeroren etxean.*
6. herritarra : Zer gertatzen zaizu ? Bada aste bat zure beha gaudela.
- Olentzero : Bai, badakit. Pentsatzen nuen, bai, xifrituak zinetela baina astoa eri dut eta astorik gabe ez dut ikatza garraiatzen ahal.
5. herritarra : Zer duk, ba ?
(astoari)
- Astoa : Burua burrunbaka ari zait, junturak minbera ditut eta zintzurra erretzen zait. Uste dut sukarra ere badudala. Kalipurik gabe nago, ahuldua. Apetitua ere galdua dut.
- Olentzero : Otoi, zerbait egizue senda dadin.
6. herritarra : Goazen berehala amonaren bila. Hark jakinen du zein sendagai eman.
- Olentzero : Zer ? Sorgin hura ? Ez dut deus ere nahi atso gaixto harengandik.
5. herritarra : Ez dugu hauturik. Amonak baizik ez dauka sendabelarren ezagutza. Goazen.
- Amonaren etxean.*
- Amona : Zer duzue ? Zer nahi duzue ? Ez nauzue bakean uzten ahal ?
7. herritarra : Ez iezaguzula atea hets. Zure beharra badugu. Olentzeroren astoa eri da eta ez baduzu zerbait egiten, hilen da eta ez dugu ikatzik ukanen gure etxeen berotzeko.
- Amona : Bon, bon. Zaudete istant bat. Kataplasma bat eginen dut eta zuekin banoa.
- Olentzeroren etxean : Amonak astoari ontsa begiratzen dio.*
- Amona : Ontsa ikusten dut zer dukan : hotzak harrapatu hau eta gripe mota bat sartu zaik. Kataplasma honekin mina joanen zaik.
- Kataplasma ezartzen dio. Berehala arrantzaka hasten da eta putar batzuk ere ematen ditu.*

Olentzero : Milesker ene astoa salbaturik. Bihar berean kargatuko dut eta herriko bidea hartuko dugu. (Astoari) Ez dea hala ? (Astoa arrantzaka hasten da.)

10. herritarra : Herritar guzien izenean milesker. Itxura idorra duzu baina bihotz onekoa zara. Ez dugu sekula ahantziko zure zintzotasuna. Hemendik goiti ongi etorria ukanen duzu herriko edozein etxetan. Aupa amona !

Herritar guziak : Aupa amona ! Aupa amona !

Kantua :

*Astoa gaixo dago, Olentzero tristerik
Txabola ikatzez beterik, pila pila udazkenetik
Ez dauka txabola uzterik, ez etxez etxe ibiltzerik
Horra Olentzero pipa hortzetan
Gauaz ibiltzen da negu hotzean
Larri daude auzoan, ikatzik ez neguan
Han egongo da Olentzero, suaren ondoan txit bero
Noiz jaitsiko da txabolatik ? galdetzen du Joxepantonik
Bi lagun joan dira elurretan mendira
Aizu Olentzero, zergatik ez duzu ekartzen ikatzik ?
Ezin dut ikatzik banatu, mesedez astoa sendatu
Arrantzaka astoa, sendatu da gaixoa
Eskarrik asko amonari eta bere kataplasma
Geroztik gure Olentzero herrira jaisten da urtero*

*Jokalariak : Hamar bat herritar, Olentzero, astoa, amona
Autorea : Kattalin Sallaberry
Argitaratzailea : Ikas
Argitaratze data : 2010/12/21
Maila : 3. ziklotik goiti*